

PRENTSA OHARRA

Sener eta Tekniker elkartu egin dira hidrogeno berdearen teknologiak eta industriaren digitalizazioa bultzatzeko

- *Industria-taldeak eta zentro teknologikoak lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenak hainbat arlotan jarriko du arreta, esaterako, trantsizio energetikoan.*
- *Talentu ikertzailearen transferentzia eta garapena ere funtsezkoak izango dira lankidetza-akordioaren esparruan.*

[Eibar, 2023ko maiatzaren 18a] – Sener ingeniari eta teknologia taldeak eta [Tekniker](#) zentro teknologikoak lankidetza-hitzarmena sinatu dute elkarrekin I+G bultzatzeko hainbat esparru estrategikotan, hala nola hidrogenoaren edo industriaren digitalizazioaren esparruetan.

Akordioa sinatzeak, [Sener](#) Teknikerren erakunde laguntzaileen nomina aipagarriko kide bihurtu du eta, horrela, sendotu egin da bi erakundeek energia berriztagarriekin lotutako hainbat proiekturen bidez historikoki izan duten harremana.

«Hitzarmen hau beste urrats bat da Senerrek berrikuntza irekiaren alde erabakitako estrategian, beste erakunde batzuekin elkarlanean lan eginez elkar osatzeko eta indartzeko», nabarmendu du Òscar Julià Sener-eko Berrikuntza eta Digitalizazio zuzendariak.

Luis Uriarte Teknikerreko zuzendari nagusiak, bestalde, aliantzaren garrantzia azpimarratu du, lankidetza luze eta estuaren emaitza den aldetik, "lankidetza horri modu askoz eraginkorragoan eusteko eta Senerri balio handiagoa emateko eta, aldi berean, inguruneari teknologia transferitzeko gure eginkizuna betetzeko" helburuarekin.

«Guretzat ohorea da Sener, Euskadin, estatuan eta nazioartean erreferentzia den ingeniari eta, gure erakunde laguntzaileetako bat izatea», adierazi du Uriartek.

Hidrogenotik digitalizaziora

Hitzarmen horri esker, Teknikerrek ezagutza eta esperientzia emango dizkio Senerri hidrogeno berdearekin edo digitalizazioarekin hainbat ikerketa-ildotan aurrera egiteko, interes handieneko arloen artean.

Offshore eolikorako teknologiak, energia hibrido eta berriztagarrien instalazioen kudeaketa, mugikortasun iraunkorra eta hiri adimendunak, sistema mekatronikoen eredu digitalen sorrera eta gailu medikoak homologatzeko metodologiak eta prozedurak bateratzea dira landu nahi dituzten beste arlo batzuk.

Gainera, elkarlanean lan egingo dute talentu ikertzailearen garapenean eta transferentzian, Senerrek langile espezializatuen inguruan dituen premia eta eskaera nagusiei erantzungo dieten trebakuntza-programen bitartez.

Senerri buruz

SENER ingeniaritza eta teknologiako talde pribatua da, 1956an sortutakoa. Bezeroei irtenbide teknologiko aurreratuenak eskaintzen dizkie, eta nazioarteko aitortza du, bere independentziari eta berrikuntzarekin eta kalitatearekin duen konpromisoari esker. Senerrek 3.000 profesional inguru ditu bost kontinentetan. Senerrek sektore hauetan lan egiten du: aeroespaziala, energia, mugikortasuna, digitala eta ontzigitza eta, industria-partaidetzen bidez, energia berriztagarrien sektoreko konpainiak sustatzen ditu.

Teknikerri buruz

Teknikerri buruz Teknikerri buruz Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen eta materialen ingeniartzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ▶ **Unai Macias** | unai@guk.eus | Tel. 690 212 067